de leur propre harmonie militaire, ainsi que quelques destins – généralement tragiques – de musiciens. Dans ces temps troublés, la musique souligne la pompe des cérémonies publiques, accompagne les combattants, attise la flamme guerrière, marquant le territoire d'une empreinte sonore signifiante. Mais le rapport entre musique et territoire devient aussi plus souple et plus mouvant : les chants révolutionnaires européens traversent les frontières, revêtant ou non paroles et langues nouvelles, la propagande unit le politique et le culturel de façon parfois surprenante – si les nationalistes basques utilisent, on s'en doute, le répertoire traditionnel en *euskara* et la pratique chorale, il est par exemple curieux de voir que ce ne sont pas eux mais les communistes qui commémorent par un concert radiophonique le cinquantenaire de la naissance du compositeur José María Usandizaga, auteur de pièces très souvent liées thématiquement et musicalement au Pays basque.

La construction nationale n'est jamais figée : de nouvelles représentations voient le jour, mais également de nouveaux usages de cet héritage patrimonial choisi sur lequel s'élabore, depuis deux siècles, toute démarche identitaire collective. Marcos Andrés Vierge propose ainsi une analyse de l'évolution de la conception et des utilisations du patrimoine, en partant des missions « traditionnelles » de conservation et de diffusion, auxquelles on associe maintenant l'éducation (l'accès à la culture). Chaque étape de sa démonstration est illustrée d'exemples pris dans la multitude d'événements et de publications qui ont accompagné la célébration du centenaire de Pablo Sarasate dans sa ville natale de Pampelune. Après avoir souligné la relation étroite unissant jusqu'à aujourd'hui le patrimoine, l'enracinement dans la tradition et l'identité culturelle, Marcos Andrés Vierge montre comment on assiste aussi maintenant à une redéfinition du patrimoine qui passe par l'élargissement de la notion de culture et la revalorisation des cultures populaires, la prise en compte du patrimoine oral et immatériel, et la volonté de faire interagir de multiples façons passé et présent.

Jean-Jacques Castéret s'intéresse à un autre héritage : il existe dans les vallées pyrénéennes de Béarn et de Bigorre une culture polyphonique ancienne, attestée depuis le XVIII^{ème} siècle. L'ethnologue en envisage les mutations successives, en particulier celles des cinquante dernières années ; il dresse tout d'abord un état des lieux, qui fait apparaître une multitude de pratiques nouvelles : les festivals de Sirois (1967) et d'Ibos (1977), où l'on chante sur scène mais aussi à la buvette, ont impulsé une dynamique culturelle qui, relayée par l'édition phonographique, se décline ensuite à travers les « soirées béarnaises » ou « bigourdanes », le renouveau des pastorales, les compétitions vocales telles que le concours de Laruns ou les rencontres *Canta se gausas*, les *cantèras* qui invitent à chanter autour d'un apéritif, etc. Il observe ensuite « un redécoupage des espaces de la polyphonie et leur redéploiement », à la manière d'un remembrement, avec « glissements de terrain » et émergence de nouveaux espaces (le développement public de la vocalité féminine, par exemple, dans les concours ou les soirées « Spécial filles »). Le territoire n'est plus seulement matériel et formalisé, il peut être également virtuel (avec le développement d'internet, les contacts établis par courrier électronique, les blogs et vidéos offerts sur la toile) et informel (ces « territoires intermédiaires » dont l'ethnologue note l'apparition). Les nouvelles pratiques génèrent des modes d'échange, d'interconnaissance, de

sociabilité nouveaux, et font émerger des communautés d'élection ou symboliques, qui ne sont plus liées à une tranche d'âge ou à un lieu précis. Jean-Jacques Castéret voit là l'apparition d'un « territoire de la vocalité », celui de la communauté du chant polyphonique ou des chanteurs pyrénéens, dont les comportements et activités contribuent à caractériser une esthétique musicale qui lui est associée, qu'il nomme « esthétique de l'identité ».

A partir également d'un travail ethnographique, Thierry Rougier propose un cas original de « tradition en mouvement », où le lien habituel entre musique et territoire évolue de façon particulière : il s'agit du *repente* du Nordeste brésilien. Cette forme de poésie chantée fait alterner deux improvisateurs, qui sont perçus comme de véritables porte-parole du peuple, avec beaucoup de liberté de ton et de pensée, mais dans le cadre de formes poétiques très codifiées. Les circonstances et certaines modalités des sessions ou *cantorias* se sont adaptées aux technologies et aux modes de vie nouveaux, dans une région en proie à toutes sortes de bouleversements, aussi bien climatiques qu'économiques et sociaux. Thierry Rougier observe que le *repente* poursuit ses fonctions sociales (médiation et régulation), mais dans un autre rapport au territoire. Il nous fait voir comment, avec l'émigration et les déplacements de population des Nordestins, une « communauté imaginée » se crée à partir d'une culture « mouvante » (le *repente*, qui reste cependant, malgré ses transformations, fidèle à ses modalités structurelles les plus contraignantes), et non à partir d'un terroir fixe, comme c'était le cas pour les nations européennes à partir du XIX^e siècle, où l'identité venait de l'équation terre = chant = peuple. Avec les mouvements de population nordestins, l'improvisation chantée n'apparaît pas comme l'émanation d'un territoire, mais se situe dans un rapport d'analogie avec celui-ci par le partage d'un trait essentiel : le mouvement, le changement. Du coup, le *repente* fait d'une tradition héritée une culture dynamique en phase avec la modernité, qui offre à l'identité nordestine un repère et une image de ce que les bouleversements liés à la modernité lui imposent : tant et si bien que le changement devient une caractéristique identitaire, à rebours de ce que les processus nationaux cultivent habituellement en bâtissant l'identité sur l'immuabilité d'un passé inscrit hors du temps et de l'évolution économique et sociale.

C'est un autre type de liaison entre musique et territoire que proposent Carmen Diez Mintegui et Jone Hernandez Garcia d'une part, et Ainhoa Kaiero d'autre part. Elles revendiquent l'inscription de leurs travaux dans une perspective d'anthropologie culturelle, et témoignent de ce déplacement de l'intérêt des chercheurs vers les agglomérations urbaines où se croisent, se superposent, coexistent de nombreux flux tant humains que culturels.

Carmen Diez Mintegui et Jone Hernandez Garcia, désireuses d'utiliser cet élément central de nos sociétés occidentales qu'est la musique pour comprendre le monde actuel, proposent les résultats d'une vaste enquête qui interroge les rapports entre la ville de Donostia/Saint-Sébastien et Jazzaldia. Les auteurs considèrent ce festival de jazz non comme un événement *dans* la ville mais comme un événement *de* la ville, et leur objectif est alors de réaliser « une lecture à partir d'un double prisme » : Jazzaldia permet de mieux comprendre Saint-Sébastien, de saisir certaines de ses particularités et, à l'inverse, la capitale gui-

puzcoane fournit quelques clés pour la caractérisation de Jazzaldia, de ses activités comme de son audience. Elles montrent que c'est le lieu et le moment qui donnent à Jazzaldia son atmosphère particulière : la plage dans la ville, l'été, mais aussi les divers espaces que le festival investit et qui permettent différents types de prestations musicales, de convivialités et d'émotions partagées. Ainsi un concert dans l'intimité close et formelle du théâtre Victoria Eugenia ne sera pas vécu de la même façon qu'une prestation de plein air, dans le cadre jugé « magique » de la Plaza de la Trinidad, propice à une « communion » musicale entre public et interprètes. Inversement, Jazzaldia transforme la ville pendant quelques jours en se répandant dans ses rues : il crée un espace de sociabilité nouvelle, où se mélangent des publics qui d'habitude ne se côtoient pas ; il rompt avec la routine estivale, il installe la fête et fonctionne comme un rituel, avec ses officiants et ses participants. Les concerts créent parfois des moments forts, qui seront marquants pour les expériences individuelles, qui resteront dans la mémoire collective et officielle, et qui contribuent à établir des relations d'identification individuelle et de groupe.

Ainhoa Kaiero ne s'attache pas à une ville particulière mais, partant de la constatation selon laquelle nous vivons aujourd'hui dans une « société en réseau », où le développement des moyens de transport, d'information et de communication a modifié nos conceptions traditionnelles, elle examine les « particularités sonores qui définissent nos espaces et établissent une identité territoriale ». Pour mieux comprendre les changements intervenus, elle compare les modes de fonctionnement des seuls espaces existant jusqu'ici, les « lieux anthropologiques » selon l'expression de Marc Augé, et ceux des « hyper-espaces » issus de la société en réseau – des « non-lieux » dynamiques et neutres, essentiellement dédiés au transit des flux générés, pour qui a été conçue la musique d'ambiance, fond sonore sans identité propre. Ces non-lieux fonctionnent aussi comme des espaces vides, qui peuvent être remplis et constamment reconfigurés avec n'importe quelle intervention sonore. Ainhoa Kaiero pointe des expériences artistiques qui permettent de bien mettre en valeur les caractéristiques de ces « champs acoustiques indéfinis », dans lesquelles la musique révèle la difficulté d'établir une « articulation narrative qui délimiterait une carte territoriale sur laquelle nous orienter ».

On trouvera à la suite de cette contribution une bibliographie, qui permettra de dessiner quelques pistes pour approfondir le lien « musique et territoire » que ce numéro thématique a voulu explorer. Signalons que, dans la partie de miscellanées, on pourra lire le minutieux travail historiographique d'Inmaculada Matía Polo, qui retrace la genèse, l'élaboration, la diffusion et la réception de deux recueils majeurs, *Ecos de España* (1873) et *Cantos y bailes populares de España* (1888), de José Inzenga. Ce compositeur et folkloriste madrilène est un de ceux qui ont œuvré pour établir un ensemble de travaux préparatoires afin d'asseoir sur des bases solides un théâtre lyrique national : ses publications sont en définitive mal connues en Espagne même, et *a fortiori* à l'étranger, et la documentation réunie ici permettra de mieux les appréhender.

BIBLIOGRAPHIE

- ANDERSON, Benedict. *L'imaginaire national*, édition française. Paris : La Découverte & Syros, 2002 ; 212 p.
- BARTOLI, Jean-Pierre. « La musique française et l'Orient : à propos de *Désert* de Félicien David ». Dans : *Revue internationale de Musique française*, n° 6, novembre 1981. Paris/Genève : Slatkine, 1981 ; pp. 29-36.
- . « Esquisse d'une chronologie des figures de l'orientalisme musical français au XIX^{ème} siècle ». Dans : JAMBOU, Louis. *La musique entre la France et l'Espagne. Interactions stylistiques*. Paris : Presses de l'Université de Paris-Sorbonne, 2003 ; pp. 201-213.
- BENOIT, Marcelle (dir.). *Dictionnaire de la musique en France aux XVII^{ème} et XVIII^{ème} siècles*. Paris : Fayard, 1992 ; 811 p.
- BORDES, Charles. « La musique populaire des Basques ». Dans : *La tradition au Pays basque*, fac-similé 1^{ère} éd. Saint-Sébastien/Bayonne : Elkar, 1982 ; pp. 295-354.
- CALVOCORESSI M.-D. *Glinka*. Paris : Henri Laurens, s.d. ; 127 p.
- CORRE, Christian. *Écritures de la musique*, Paris : PUF, 1996 ; 207 p.
- COUPERIN, François. *Les goûts réunis*. Paris : Boivin, 1724 ; 76 p.
- FAUQUET, Joël-Marie (dir.). *Dictionnaire de la musique en France au XIX^{ème} siècle*. Paris : Fayard, 2003 ; 1406 p.
- FRANCFORT, Didier. *Le chant des nations*. Paris : Hachette, 2004 ; 461 p.
- HORTON, John. *Edvard Grieg*. Paris : Fayard, 1989 ; 300 p.
- HUGO, Victor. *Odes et ballades. Les Orientales*, réédition. Paris : Garnier-Flammarion, 1968 ; 442 p.
- . *Œuvres complètes. Critiques*. Paris : Robert Laffont, 1985 ; 761 p.
- LABORDE, Jean-Benjamin de. *Essai sur la musique ancienne et moderne*. Paris : Imp. de Ph.- D. Pierres, 1780, livre IV ; 476 p.
- LAFITAU, Joseph-François. *Mœurs des sauvages américains comparés aux mœurs des premiers temps*. Paris : François Maspéro/La Découverte, 1983 ; 2 tomes 287 et 185 p.
- MERSENNE, Marin. *Harmonie universelle*, fac-similé 1^{ère} éd. Paris : C.N.R.S., 1965 ; 3 volumes 228+36, 442 et 412+79+68+28 p.
- MOREL-BOROTRA, Natalie. « Le chant et l'identification culturelle des Basques ». Dans : *Lapurdum*, n° V, 2000. Bordeaux/Bayonne: UMR 5478 du C.N.R.S./ Faculté pluridisciplinaire de Bayonne-Anglet-Biarritz, 2000 ; pp. 351-381.
- PRAETORIUS, Michael. *Syntagma musicum*, fac-similé 1^{ère} éd. Kassel : Bärenreiter-Verlag, 1959 ; tome 2, 238 p.
- RINGER, A.L. « On the question of exoticism in 19th century music ». Dans : *Studia Musicologica Academiae Scientiarum Hungaricae*, tome 7, fasc. ¼. Budapest, 1965 ; pp. 115-123.
- ROBERT, Paul. *Dictionnaire alphabétique et analogique de la langue française*. Paris : Le Robert, nouvelle éd. 1987, 2171 p.

- ROMAGNAN, Jean-Marie. « La musique, un nouveau terrain pour les géographes ». Dans : *Géographie et cultures*, n° 36, hiver 2000. Paris, L'Harmattan, 2000 ; pp. 107-126.
- ROUSSEAU, Jean-Jacques. *Dictionnaire de musique*, fac-similé nouvelle éd. Paris : Art et culture, 1977 ; 2 tomes 442 et 491 p.
- SALVADOR-DANIEL, Francisco. *Musique et instruments du Maghreb*, nouvelle éd. Paris : La boîte à documents, 1986 ; 176 p.
- TAIEB, Patrick. *L'ouverture d'opéra en France de Monsigny à Méhul*. Paris : Société française de Musicologie, 2007 ; 494 p.
- THIESSE, Anne-Marie. *La création des identités nationales*. Paris : Seuil, 1999 ; 302 p.
- WARRACK, John. *Carl Maria von Weber*, traduction française Paris : Fayard, 1987 ; 471 p.

MUSIKA ETA LURRALDEA: BATERATZE BATEN GORABEHERAK*

«Euskaldunak ezagutzeko, ez dago beren kanta baino hoberik. Kantak, bere hizke-ra xalo eta atsegingarriaz, aditzera ematen ditu izaera miragarri hori osatzen duten sentipen biziak eta sentimendu zintzoak. (...) musika horrek ez ditu euskaldunaren sentimenduak eta sentipenak soilik adierazten, horrez gain bere bizitza fisiko, lan, joko edo dantzarekin halako elkarrekikotasun misteriozua ere badu eta (...). Eta poeta bat are urrutiago joango da: ezinezkoa izango zaio konposizio horietako batzuk ulertzea, Euskal Herria bera ikusi gabe, Lotik *Ramuntcho* bere eleberrian hain ondo margotu duen lur-bazter horretako natura zoragarria, alegia» (Bordes, 1899: 297-298).

Herri-kanta bat entzuten ari den pertsonari agertzen zaion lurraldea? Entzunezko ilusio horiek kontatzea XIX. mendearen amaierako literaturan eta kontakizun etnografikoetan ohikoa bazen ere, ez da beti hala gertatu, eta geure buruari galde diezaiokegu era horretako harremanak gaur egun egokiak ote diren. Musikaren eta lurraldearen arteko dinamikaz jabetzea ez dago jadanik alderdi nazionalari soilik lotuta (kultur ohituren eraldaketak, biztanleen arteko nahasketak, teknologia berrien garapenak, besteak beste, egoera aldatzen lagundu baitute), eta, hala, identitate-irudikapenaren arazoa berpiztu egin da. Interesgarria iritzi diogu Musikerreko 17. zenbaki honetan horren inguruko alderdi batzuk aztertzeari, eta hemen proposatzen dizkizuegun artikulua Pirinioen bi aldeetan xede horrekin egindako ekarpen-deiaren emaitza dira.

Ezer baino lehen, gogora dezagun laburki zeintzuk diren “musika” eta “lurraldea” kontzeptuek dituzten ibilbide bereizi nahiz bateratuak zehazten dituzten alderdi garrantzitsuak. Esploratzaileek, denbora luzez, bidean aurkitutako soinu-adierazpenen berri eman izan dute: musika-tresnei buruzko informazioa eta “musikarekin” zerikusia duten elezaharrak eta ohiturak pertsona horien jakin-mina edo harridura piztu dituzten elementuak dira, eta egokitza jo izan dira lur berri edo lur ezezagun bat ezagutzera ematen laguntzeko, edo ezagunak zituzten eskemen arabera egindako deskribapen bat osatzeko. Hala bada, Louis Antoine de Bougainvillek idatzitako *Voyage autour du monde* (1771) lanean edo Antoine François Prévostek *Histoire générale des voyages* sekulakoan (1746tik aurrera argitaratua) zehaztasun handiago edo txikiagoko adibide ugari aurki ditzakegu, musikaren presentzia adierazten dutenak¹. Alabaina, azalpen labur eta sakabatu haiek, artean, ezin zuten berez urrutiko eskualdeen irudia behar bezala osatu, hainbat arrazoi zirela-eta: xehetasun batzuk besterik ez ziren, mundua ezagutzen ari zen ikuspegi eurozentrikoak zirriborratutako erretratuari atxikiak, xehetasun mutuak, eta publikoak, xehetasun horiei antza eman baino lehen, ezagutzen ikasi behar du.

*. Frantsesezko testuaren itzulpen bat da.

1. Adibide gisa, Louis Antoine de Bougainvillek Tahitiri buruz egin zuen deskribapena aipa dezakegu: horren arabera, uhartea Edengo lorategiaren antzerakoa zen, eta bertan “musikariek, txirularen akordeez lagunduta, atsegingtasun-ereserkia abesten zuten” (*Voyage autour du monde*, Paris: Saillant & Nyon, 1771, chapitre IX); edo “ahots ezberdinetara abesten duten Sandwich uharteetako biztanleek” zituzten musika-ohiturei buruzko ohar luzea, Cooken kontakizunean aurki daitekeena (argitalpen berri laburtua, Jean-François de La Harpe, Lyon: Imprimerie de M.P. Rusand / Paris, 1835, 29. zkia., III. lib., pp. 145-146).

Musika-zientzian adituagoak ziren hainbat aztertzailek pentagrametan jarritako notazioak gaineratu zituzten zenbaitetan beren testuetan: Giovanni Battista Donado veneziar senatariak, Istanbulen hainbat urte igaro zituenak, hiru doinu “turkiar” gehitu zituen testuaren aberasgarri, *Della letteratura de' Turchi. Osservazioni fatte da Gio. Battista Donado senator veneto, Fù Bailo in Costantinopoli* (1688) izenburuko bere lanean (Ringer, 1965: 117). Era berean, Jean-Baptiste Du Haldek bost doinu “txinatar” sartu zituen bere *Description géographique, historique, chronologique, politique et physique de l'empire de la Chine et de la Tartarie chinoise* (1735) lanean (Ringer, 1965: 115), Erdiko Inperioan bizi ziren jesulagunek transmitituak. Bere ordezkaria, Aita Amiot, Pekinen bizi izan zen 1750etik 1793ra arte, eta hainbat memoria bidali zituen –gehienak argitaragabeak–, mantxuriarren gortean interpretatzen ziren olgetako doinuen notazioak jasotzen zituztenak (Benoit, 1992: 16). Geroagoko musikagile batzuek doinu horiek gogora ekarri zituzten, eta pasarte batzuk txertatu zituzten beren lanetan: Carl Maria von Weber konpositoreak, adibidez, Du Haldek jasotako doinu bat erabili zuen bere *Ouverture chinoise* lanaren gai bakar gisa², eta Egiptoko kanta bat, Carsten Niebuhr daniarrak bere *Reisebeschreibung nach Arabien* izeneko lanean aipatua (1774), *Obéron* bere operaren lehenengo ekitaldiaren amaieran (Warrack, 1987: 75, 384-385).

XVII. eta XVIII. mendeetako musikako teorialariek eta musikografoek ere Europatik kanpoko musikak aztertu ahal izan zituzten: Michael Praetorius musikagileak bere *Syntagma musicum* lanean (1615-1619) musika-tresna exotikoen zirriborroak jaso zituen (1959: XXIX.etik XXXI.era bitarteko irudiak); era berean, Marin Mersennek bere *Harmonie universelle* izenburuko lanean (1636) aitortu zuen helburua “Indietako eta Turkiako hainbat musika-tresna azaltzea” zela, eta marrazkiak zituen irudi bat gehitzeaz gain (1965, III. liburukia: 227-228), “indietako musika-tresna” bat ere aurkeztu zuen (berez, aho-organo bat), grabatua zuena (berdin: 308). Nolanahi ere, informazio horien bolumena guztiz txikia da, osotasunarekin alderatuz gero: helburua “harmonia unibertsala” da, hain zuzen ere (hau da, kasu honetan, funtsean, jardutearen edo ikastearen ondorioz ezaguna duen musika jasoarena, eta, horretan oinarrituta, Mersennek soinuen artea irudikatzea espero zuen), eta ez urrutiko herrialdeekin zerikusia duten musika bereziak aztertzea, hori pentsaezina baita musikaren fenomenoaren ikuspegi bateratu horren arabera.

Garai hartako musika jasoaren erreperitorioak Europatik kanpoko eskualde horiekin dituen loturak zehazturik daude, batik bat, libretoetan eta antzezpenetan: bereziki aipatu behar dira lan lirikoak³, gorteko balletak, dibertimenduak eta karruselak. Exotismoaren modak –Txinako porzelanen erabilerak edo *Mila gau eta bat gehiago* lanaren itzulpenek aditzera ematen zuten bezala– irudimenak akuilatzen zituen, jakina, baina ez soinuenaren ikuspegitik, eta hala zen hainbat arrazoiengatik: alde batetik, bitxikeria ez delako opera serioaren mesedegarri, eta bestaldetik egiazko ezagutzak oso urriak zirenez gero eta erdietsi nahi zen helburua harrigarria dena erakustea eta dibertimendua eskaintzea izanik, fantasia izugarria nagusitzen zelako antzezpenean. Frantziari dagokionez –Frantzia baita exotismoa gehien lan-

2. Jean-Jacques Rousseau *Dictionnaire de musique* lanaren bidez (1977, 2. lib.: 26).

3. A.L. Ringerek ezagutza eman zituen 1800 baino lehenagoko lauhun operatik gora, gai exotikoetan oinarrituta zeudenak (1965: 115).

du zuen herrialdea, zalantzarik gabe, Nathalie Lecomtek laburbiltzen duen bezala, “ez dugu egiazkotasun-zantzurik bilatu behar, ez musikaren ez koreografiaren ikuspegitik. Era konbentzionalean eta estereotipatuan irudikaturik, atzeritarrek frantses estilo petoenean abestu eta dantza egiten dute” (“exotisme” artikulua, in Benoit, 1992: 281). Rameauren lanek oso ondo erakusten dute hori: *Indes galantes* (1735) izenburuko lanean, adibidez, “Indiako giroen barruan” (Montesquieuren aztarna islatzen duen formulazioa...), “Osman pasharen lorategiak”, “Peruko basamortu bat”, “Ali pertsiar printzearen jauregiko lorategiak” eta “nazio basati” baten bizilekua den “Amerikako oihan bat” sar daitezke; baina, desberdinak diren lurralde horiek ez dira asko bereizten musikaren ikuspegitik, eta bukaerako “sarrera”, urte batzuk lehenago klabezinean jotzeko idatzitako basatien dantza ospetsua berreskuratu zuena, txakona batez amaitzen da.

Oro har, karakterizazio musikala perkusioaren erabilaren bidez gauzatzen zen, batez ere lan exotikoetan; XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera “musika turkiarra” izendatu zen musika mota hori, eta, mundu otomandarra zabalki gaindituta, India edo Txina ere barnean hartzen zituen. Patrick Taïebek XIX. mendearen bukaera arteko opera komiko frantsesei buruz jakitera eman duen bezala, “era horretan karakterizatutako ekialdea, eskualde bat ez, genero dramatikoia da, “*turquerie*” delakoa alegia, komedia mota bat, oso arina, non urruneko kokapenak arauak baztertzea ahalbidetzen baitu” (2007: 152).

Zer gertatu da Europako askoz ere lurralde ezagunagoetan jatorria duten musikekin? Lehenik eta behin, dantza da musika eta lurralde, bi entitate hauek uztartzen dituenak. Mersennek, bere lanaren *Traitez de la voix et des chants* izenburuko atalean, “danceries” izenekoak aipatzen ditu, “Frantziak berezkoak dituenak, edo beste nazio batzuetan, zeinetatik guk hartu ditugun, jatorria dutenak”, adibidez: “*Passamezze* izenekoak italiar joerako kanta bat da, dantza egiteko aproposa (...). *Pavane* Espainiatik dator (...). *Allemande* Alemaniako dantza bat da (...), eta abar”, eta mota bakoitzeko musikaren adibide bat ematen du (1965, II. tomoa: 164). Dantza horiek jaso zituen dagoeneko Thoinot Arbeau elizgizonak, bere *Orchésographie* (1589) lan ospetsuan Europaren ikuspegia eskaini baitzuen. Kantak geroago agertu ziren: Jean-Baptiste de La Bordek, adibidez, kantak aztertu zituen bere *Essai sur la musique ancienne et moderne* (1780, IV. liburua) izeneko lanean, mendebaldeko herri-errepertorioa ere aztertu zuela horrekin batera; Iparraldeko Europar sakondu zuen, eta Frantziako hainbat probintziatako kantuen hitzak eta musikaren moldaketa eskaini zituen. Egiaz, egile artatsuenetako bat izan zen (aldeak alde) gai hori tratatzeko orduan: interes berria gorpuzteko zorian zegoen seinale, ezbaierik gabe, eta berea bezalako lanek interes berri hori agerian jartzeaz gain, sortzen lagundu ere egin zuten.

Garai hartako musika jasoak europar geografiaren berri jaso ote zuen? Lan barrokoen izenburuek baietz pentsaraz lezakete: hala bada, François Couperinek *Les nations* izenburupean *La Française*, *L’Espagnole*, *L’impériale*, eta *La Piémontoise* lan instrumentalak argitaratu zituen 1724an. Hala ere, “ordena” bakoitzaren barruan, berez, italiar joerako sonata bat eta horren ondoren frantses erako dantzak bildu zituen. Couperinek azalpenak eman zituen bi urte lehenago plazaratu zen bere *Goûts réunis* izeneko lanean: “Joera italiarrak eta joera

frantsesak duela denbora luze partekatu dute Musikaren Errepublika; nire ikus-pegitik, beti balioetsi izan ditut merezi duten gauzak, egileen eta nazioen artean bereizkeriarik egin gabe”. Musikaren eremuan bidezkoa den lurralde bakarra “Musikaren Errepublikaren” espazio birtuala da, bertan nagusitzen baitira “joera” italiarra eta frantsesa, eta joeraren definizioa musika-estiloa da, musikagilearen sorlekua eta musikagileak lan egiten duen lurraldea alde batera utzita. Eztabaidak, hala ere, guztiz bortitzak izan ziren Frantzian, bertan panfletoek eta saiakerek “liskarrak” piztu baitzituzten. Beste herrialde batzuetan, musika italiarra nagusitu zen, Lisboatik Moskuraino, italiar musikariek edo beste herrialde horietako bertako musikariek eramanda. Joël-Marie Fauquetek esaldi batez laburbildu duen bezala, “eztabaida estetikoak, XVII. eta XVIII. mendeetan eskola nazionalen merezimendu konparatzaileak zalantzan jarri zituenak, ez du zerikusirik nazionalismoarekin, arte-entitate gisa ulertutako nazioaren kontzeptuari dagokio eta” (“nationalisme” artikulua, 2003: 855).

Marin Maraisen *Le Basque* (5. suitea) eta *La Biscayenne* (6. suitea) konposizioek, kasu, ez gaituzte engainatu behar: *La Provençale* (3. suitea) eta sei suiteak ziprztintzen dituzten hainbat *allemande* bezala, dantzak dira, paristar musikagileak bere *Pièces pour viole* jasotzen dituen 4. liburua (1717) osatzeko elkartu zituenak⁴. Dantza-izenburu batek ez dakar berekin doinu autoktonoa erabiltzerik, ezta deskribatzeko asmo berezirik ere –aipatu ditugun lehenengo biei dagokienez, gogora dezagun, gainera, “*pays des Basques*” edo “*Biscaye*” nahiko ezezagunak zirela garai hartan. Ez zen, beraz, bertako kultura, bertako idiosinkrasiaren musika-adierazpenak edo inguruko lurraldeetakoak irudikatzeko garaia.

Alabaina, egoera, aldatzeko bidea urratzen ari ziren, eta Jean Jacques Rousseau izan zen, zalantzarik gabe, gertatzen ari ziren aldakuntzen lekukotasuna eman zuen egile zolienetako bat. Bere *Dictionnaire* (1767) lanean dagoen “Musika” artikuluan, *ranz des vaches* delako kanta motaren ildotik, ohar bat idatzi zuen: “*Musikak*, beraz, ez du hain zuzen ere *musika* bezala jokatzeko, oroitzapen-adierazgarri bezala baizik” (1977, 1. tomoa: 362). Memoriak, izan ere, gero eta eginkizun garrantzitsuagoa izan baitzuen musikaren eta lurraldearen arteko harremanetan: musikak leku baten memoria berpiztu dezake, era horretan suitzar mertzenarioak desertatzera bultzatuz, “haiengan beren sorterrria berriz ikusteko irrika bizia pizturik” (*berdin*), eta, modu berean, lurraldearen eta bertan bizi den herriaren memoria ere bihur daiteke, zuzen-zuzenean. Benedict Andersonek egiaztatu duen bezala, bi erreferentzia-ingurune, hots, erkidego erlijiosoa eta erresuma dinastikoa, suntsitzearen eta denbora ulertze-ko modua denborazko egutegiaren erabileraren bidez aldatzearen ondorioz, kultura eta gizartea antolatze-ko modu berri bat agertu zen, eta modu berri hori behar bezala gauzatzeko prozesua abian jartzea kapitalismoaren eta inprimatutakoaren garapenari zegokion: nazioari, alegia. Andersonek proposatu zuen definizioak ahalbidetu zuen, 1980ko hamarkadatik aurrera, nozio hori berraztertzea. Izan ere, Andersonen arabera, nazioa “irudizko erkidego politiko” gisa agertzen zen, “eta barne-barnean mugatu eta burujabe moduan irudikatua” (2002: 19). Prozesu hori prestatzen lagundu zuen fenomeno nagusietako bat lurraldearekiko lotura aldatzea izan zen.

4. Urte berean, Couperinek *La Basque*, argitaratu zuen, *Second livre de pièces de clavecin* lanetik aterata.

Eskuartean dugun gaiaren nondik norakoak hobeto ulertzeko, beharrezkoa izango da gertakizunen kronologia gogora ekartzea.

Rousseauren hiztegia agertu baino urte batzuk lehenago, eskoziar poeta gazte batek, James Macpherson izenekoak, Highlands eskualdeko mendietan jaso zituen hainbat elezahar gaeliko ingelesera itzulita argitaratu zituen: *Fingal, an Ancient Epic Poem (...) Composed by Ossian, the Son of Fingal* (1761, 1773an osatua). Arrakasta berehalakoa izan zen Europa osoan, nahiz eta Macpherson berehala jo poema epikoaren egile nagusitzat, bakartzat ez esatearren. Baina, axola gutxi zuen horrek, zeren era horretan erakutsi ahal izan baitzen Antzinako greziar eta latindarraren eredu (ordura arte inoiz zalantzan jarri gabea) eta aro horretan etorkia duen eredu klasikoa berdinu egin zitezkeela, eta kultura europarrak beste iturri batzuetan edan zezakeela: Europako bertako kulturetan. Nola atzeman idazketa ezagutzen ez zuten antzinako kultura indigena haien ekoizpenei? Anne-Marie Thiessek, “legitimitate kulturalaren aldaketa” den fenomenoa ederki aztertu duenak (1999: 23), era harrigarrian laburbildu zuen aipatutako fenomenoa: “Jatorrietara iristeko bide bat dago, arbaso sortzailerak aurkitu eta beren ondare baliotsuak berreskuratzea ahalbidetzen duena. Herria, hain primitiboa izanda, bizirik dagoen fosil bat da, modernotasunaren erdigunean asaba zaharren espiritua gordetzen duena” (21). Herriak kantatzen du, eta herri-hizkuntzan dagoen herri-poesia horretan ikusi zuen Gottfried Herderek “aiurri nazionala”, “herriaren espiritua” (*Volksgeist*), bere naturari, bere izaerari, leialtasuna gorde dion gizateriaren ahotsa. “Kantak herriaren artxiboak dira, bere jakinduriaren eta bere erlijioaren, bere teogoniaren eta bere kosmogonien altxorra. Arbasoen gertaera gogoangarrien altxorra dira, gogora ekartzen dute haien historia, haien bihotzaren aztarna eramaten dute berekin, poztasunean eta goibeltasunean, ezkon-ohean eta hilobian islatzen den etxeko bizitza irudikatzen dute” idatzi zuen (A.M. Thiessek aipatua, 1999: 39). Herderek, beraz, herri-kantak jasotzeko deia egin zuen, eta berak ere hainbat etorkitako *Volksliederen* hitzen antologia zabala argitaratu zuen (1778-1779). Hizkuntzari –hein handian, eta hasiera batean nolanahi ere, herri-kantak berekin eramaten zuena– emandako garrantzia izan zen nazioa eratzeko arrazoi bat, mendebaldeko Europan behintzat: lotura bat, baliokidetasuna ez esateagatik, mamitu zuten hizkuntzak, herri-kantak, kulturak (terminoaren esanahi zabalean), lurraldeak eta nazioak elkarren artean, eta lotura hori izan zen iruditeria nazionala eratzeko abiagunea.

XIX. mende osoan, Europako jakintsuak, modu orokorragoan, inbentario-lan zehatzari lotu zitzaizkion: hala da, nazioak eratzeko ezinbestekotzat jotzen ziren elementuak –“monumentu” materialak edo literarioak, usadioak eta ohiturak, hiztegiak eta gramatikak, kontakizun historikoak– batu behar ziren, elementu horiek ingurune ikasietatik kanpo zabaltzeak “irudizko erkidegoak” sortzea ahalbidetzen baitzuen. A.M. Thiessek lantegi zabal kosmopolita gisa deskribatu du mendearen lehenengo erdiko Europa, non jende guztia elkarlanean aritzen den (1999, 66): hala bada, plazaratutako lehenengo euskal “kanta” ustez antzinakoa (poema epikoen zentzuan) Berlinen argitaratu zen 1817an, alemaniar baten ekimenez –Wilhelm von Humboldt–, eta Europa jakintsuaren inguruko bira egin zuen (Morel-Borotra, 2000: 355).

Artea izan zen, bereziki, “nazioa erakusteko” baliatu zen bidea, bildu ziren elementuetan oinarrituta landutako artea hain zuzen ere –eta artista nazionalak landua, gainera–: kultura jaso nazionalak, hortaz, herri-kultura autoktonoetatik abiatuta eratu ziren. Musikaren alorrean, mendea igaro ahala, gero eta ugaria-goak ziren herri-kanten eta herri-dantzen bildumek konposizio askoren doinua eta erritmoa osatzeko materiala eskaini zuten, eta leku baten idiosinkrasiatza hartzen zenarekin lotura argiko tradizio musikalik ordura arte izan ez zuten lurralde guztietan berezko musiken sorrera ahalbidetu zuten (lan hau osatzen duten hainbat artikulutan, mende-erdi batean Pirinioen bi aldeetan plazaratu ziren euskal kanten bildumen aipamena egingo da)⁵. Dantza autoktonoan oinarrituta idazteak ez zeuzkan aurreko mendean izandako esanahi eta eragin berak, eta, era berean, modalitate desberdinen arabera idazten zen. Antzerki lirikoak, gainera, hizkuntza erabiltzeko, oroitzapen historiko edo/eta kulturala pizteko eta nazioaren ikusizko irudikapena egiteko aukera eskaintzen zuen. Gauza bera gertatu zen poema sinfonikoarekin, neurri txikiagoan, hala ere: oroit dezagun, adibidez, Bedrich Smetanaren *Má Vlast* [nire aberria] zikloa, gogora ekartzen baititu, bata bestearen ondoren (eta polken, dumken, bohemiar kanten eta hussiten abesbatzen laguntzaz), Bohemiako printzeen gotorlekua, ibai nazionala, elezaharretako amazona bat, herrialdeko zelaiak eta basoak, hussiten borrokak eta arriskuan dagoen aberriaren alde euren betiereko loalditik esnatzeko prest dauden heroiak gordetzen dituen mendia.

Hala bada, nazioen asmakuntzarekin batera, musika mota jakin baten eta musika horren sorterriaren arteko lotura alderantzikatu egin zen, edo zehazkiago esateko, bi norabidetan abiatu zen: nazioaren ikuspegitik, musika zen –besteak beste– nazioa eta bere lurraldea sortu zituena, eta identitatearen eraikuntza izan zen berezko errepertorioa sortzera bultzatu zuena. Europa erromantikoan, eta XX. mendearen hasiera arte, gora egin zuten “eskola nazionalak” elkarren mendekotasun horren adierazgarri nagusiak izan ziren musika jasoan, etnografiak eta gero etnomusikologiak folklore izendatzen den alorrean antzeko korrelazioa ezartzen zuten une berean: ingurune horretan, hain zuzen ere, ulertu behar da aitzinsolas honen idazpuruan egin dugun aipamena. Mikhaïl Glinka musikagileari aurpegira dakioko “mujiken” musika edo, baita ere, “gurtzainen” musika idatzi zuela (Calvocoressi, s.d.: 32). Edvard Grieg konpositoreak, Hardanger eskualdeko biolin-jotzaile bat liluratuta entzun eta “horra hor Norvegia” esan zuenak, bere “musikak arrain-usaina izatea” nahi zuen (Horton, 1989: 103, 9) –alabaina, muturreko adierazpen horiek irakurrita ez dugu pentsatu behar musika “jasoa” eta “herrikoa” maila berekotzat hartzen zirela: leku guztietan pentsatzen zen sorlekuaren emanazioa arte jakintsuaz jantzi behar zela, zegozkion noblezia eta maila erdiesteko–.

Exotismorako zaletasuna nazio-sorreraren prozesuak agertu baino lehen garatu bazen ere, prozesu horiek eragina izan zuten arte-joera hau irudikatzeko moldeetan. Europaz kanpoko musika-tradizioak ulertzeko orduan, nolanahi ere, denbora

5. Zehaztu behar dugu bilduma horietatik ateratako hainbat pieza lirikok Bilbon, 1910ean, izan zuten arrakastaren ondorioz argitaratu zirela bi kantutegi garrantzitsuenak, Azkuerena eta Donostiarena, lan nazionalak idaztea ahalbidetzen zuten materialak musikagileen eskura jartzeko xedez (Morel-Borotra, 2000: 374).

luze behar izan zen kulturaren inguruko hipotesi eta aurreiritzi zaharrak baztertzeko. Hala bada, hasiera batean, europarrek munduko gainontzeko lekuetako musiketan primitibismo-adirazpenak baino ez zituzten ikusi, sentikortasunez entzuteko egokiak ez zirenak, izan ere, musika horiek mendebaldeko kulturaren antzinako oinarriak hobeto ezagutzeko eman zezaketen ikuspegia zen interesgarriena. Tribu exotikoak azken helmuga sistema tonala duen bilakaeraren hasierako fasean zeudenez, beren musikek ahalbidetzen zuten antzinako idazkietan ez beti era esplizituan kontatzen zena azaltzea: espiritu horrez beterik zegoen Joseph-François Lafitau jesuita, 1724an *Mœurs des sauvages américains comparés aux mœurs des premiers temps* lanari lotu eta hainbat orrialdeetan “kantuen ospakizunak” eta dantzak deskribatu zituenean (1983, I. tomoa: 114-124)⁶. Ia mende bat geroago, Guillaume André Villoteauk tesi hori hainbat lanen gai bihurtu zuen: Bonapartek gidatutako Egiptoko espedizioan parte hartu zuen, eta bertako musika eta musikatresnei buruzko behaketak argitaratu zituen 1812an, *Description de l’Egypte* lanaren XIII. eta XIV. liburukietan. Antzinaroari buruz zituen ezagutzak eta aldi horretako zibilizazio egiptoar eta greko-latindarrei zien miresmenak bultzaturik, entzuten zuena aztertu zuen alor horretan zituen ezagupenen arabera, edo, aitzitik, ezagupen horiek egiaztatzen edo osatzen ahalegindu zen, hondakin arkeologikoei eta bere garaiko musika egiptoarrari buruz egin zituen behaketetan oinarrituta. Hain zuzen ere, berak antzinakoa zelako idealizatzen zuen musika hori antzinako musikaren mailan ez egotea deitoratzen zuen, eta ez zen inoiz aintzat hartzera iritsi bere edertasun-irizpideen aurkakoak ziren soinuak (Corre, 1996 : 7-26): izan ere, bere garaiko musika egiptoarra, beretzat, ez zen lurralde jakin bateko musika, gizateriaren historiaren une bateko musika baizik.

Mende-erdi bat geroago, Francisco Salvador-Danielek ere denboran zeharreko bidea egin zuen: *La musique arabe, ses rapports avec la musique grecque et le chant grégorien* (1863) izenburuko lanean, frogatu nahi izan zuen “orainaldia, arabiarrei dagokienez, guretzat hamahirugarren mendearen aurreko musika izango litzatekeenarekin bat datorrela, eta gaur egungo musika arabiarra ez dela troberoen eta ministrilen kantua besterik” (1986 : 31). Ordea, aldatu zena musika horri egindako balorazioa izan zen: izan ere, hasiera batean, ez zuen bertan antzeman “jende guztiak bezala, doinurik eta neurririk gabeko zalaparta ikaragarria baizik”; geroago, musikari indigenekin ikasi zuen, “arabiarren musika ulertzen dutenei musika horrek eskaintzen dizkien atseginez gozatzea” lortu zuen, eta haien “teoria galdua berregiten” ahalegindu zen (*berdin* : 29-30).

Eskola nazionalen mugimenduarekin batera, beraz, 1840ko urteetatik aurrera, exotismo musikaren garapena gertatu zen, eta Frantzian, Félicien Daviden lan sortzaileen eskutik agertu zen aipatutako exotismo musikala. Berez orientalismoa zenari –Errusian ere zabaldua zegoen joera– hispanismoa gehitu zitzaion (joera hori oso zabaldua zen halaber frantsesen eta errusiarren artean, eta, neurri txikiagoan eta beste era batera, alemanen artean), Espainia eskualde exotikoa baitzen askoren ikuspegitik, “erdi afrikarra” (Hugo, 1828 : 322). Davidek Egiptora bidaiatu zuen; bere lanen arrakastari esker (*Mélodies orientales*, pianoan jotzeko, 1835ean

6. Esker onak eman behar dizkiot Lothaire Maburi, lan honetaz eta bere edukiaz ohartarazi nauelako.

argitaratuak, eta, batez ere, *Le Désert* izenburuko oda-sinfonia, 1844), soinu-oroi-tzapenen artean egindako hautaketak urteen poderioz osatu zen lexikoaren lehenengo oinarri bilakatu ziren, arian-arian eratu ziren identitate-bereizgarriak elkartuz, eraikuntza nazionalen ereduaren haritik. Jean-Pierre Bartolirentzat, “musikaren ezaugarri deskriptiboa (ekaitza bat, eguzkiaren irteera, eta abar) eta musika arabiarra ustez benetan suspertzea izan ziren, batez ere, harridura handia sortu zutenak” (1981 : 30). Bere lanetan zehaztu ditu agerian jartzen dituen erretorika orientalistaren irudiak, Davidek bere konposizioetan egindako urratsetan oinarrituta:

Hala bada, garai hartatik aurrera, “egiazko” maileguaren printzipioa, mailegu horien imitazioarena edo, era orokorragoan, ustez Ekialdeko *errealitate* musikala zen horri erreferentzia (esplicitua edo implizitua) egitearen printzipioa irizpide estetiko bilakatu zen, eta irudipena baizik ez zen soinu-unibertso exotikoaren ametsezko eraikuntzak, aldiz, ez zituen betetzen ez publikoak espero zuena, ez sortzaileen eskakizun estetikoak (Bartoli, 2003: 202).

“Ekialdean bilatu behar dugu goieneko erromantizismoa”⁷, esan zuen Friedrich Schlegelek 1800. urtean dagoeneko. Oroitzapen exotikoek eta nazionalak mukuratu betetzen zituzten erromantizismoaren garaiko eta erromantizismoondoko itxaropen guztiak, bereziki “bertako koloreari” zegokionean; hala ere, garrantzitsua da adieraztea musikaren eta lurraldearen arteko harremana gauzatzeko era ez zela errealtismoa izan, “egiazkoa” bilatzea baizik, Victor Hugok egindako bereizketa aipatzeagatik (1985 : 236). Ondorioz, konpositorea efektuaren bila ibili zen, begitazio baten bila, publikoak menderatzen zituen ohizko irudikapen eta asoziazioen sistema bati esker funtzionatzen zuena.

Musikak lurralde jakin baten aintzatespen nazionalen izan duen eginkizuna aztertu dugu –gogora dezagun Europaren egungo mapa, neurri handian, XIX. mendean marraztu zela–. Aintzatespen hori estatu-nazioaren ingurune politikoa-ren barruan sar daiteke, edo aldarrikapen erregionalen edo nazionalen xede nagusia izan daiteke. Musika-sorkuntza eta musika-ohiturak helburu ideologikoa-ak erdiesteko edo propaganda egiteko erabil ditzakete botere zentralak zein separatismoaren aldeko mugimendu politikoa. Didier Franckfort historialariak ikertu du “musikaren eginkizun nazionalista” izendatzen duena, bere iritziz 1870etik 1914ra bitartean maila gorenera iritsi zena: musikaren unibertsaltasun-sentimendua, orduan, ezabatu egin zen, “nonahi, musikaren aiurri nazionala tokiko jenio bati atxikita dago, historiaren, geografiaren eta ohituren erabaki ezeztazinar” (2004: 11). Lehenengo Mundu Gerrak fenomeno hori geldiarazi zuen, eta *urte eroetan*, aldiz, musika berriak hedatu ziren Europa osoan (jazza, dantza amerikarrak eta, geroago, filmetako musikak), fonografoari esker eta, beranduago, irratia-ri esker. Bigarren Mundu Gerrak, eta haren ondorengo politikan, ekonomian, teknologian eta kulturen gertatu ziren aldakuntza handiek areagotu egin zuten bilakaera hori.

Gaur egun, lotura nazionala, baldin eta horrelakorik badago, bizitza moderno-ra eta mundializaziora egokituta, ez da dagoeneko hain egokia musika-adierazpen

⁷ Adierazpen ospetsu hori Athenäum-en argitaratu zen (Henri Lichtenbergerek aipatua in Goethe, *Divan occidental-oriental*, Paris : Aubier, s.d., p. 8).

eta -ohituren eta geografia-eremuen arteko harreman guztiei buruz hausnartzeko orduan. Baldin eta alderdi politiko-nazionalen batek bizirik badirau, politika kulturalak ezartzea edo ondorio ekonomikoak egotea izango da batez ere, oso maiz gertatzen dena (ikusbizunen industriaren edo turismoaren bitartez, adibidez). Lurraldeak, halaber, ezaugarri jakin batzuk dituen eta aldarrikapen orokor berezirik ez duen eremu batekin bat egin dezake –alabaina, musika beti ager daiteke lurralde horretako kide izateko sentimenduaren eragile eta bitarteko gisa–.

Horrez gain, termino hori, dagoeneko, ezin da identifikatutako leku geografiko bezala soilik ulertu (“giza talde bat bizi den lurrazalaren luze-zabalera” hori, *Robert* hiztegian jasotako definizioaren arabera), materiaz gabetutako kokaleku edo kokaleku birtual gisa ere uler daiteke-eta: ez dago musika nazional edo erregionalen mosaiko bat bakarrik, mugak gaindi ditzaketen “espazioak” ere baitaude, herri bati lotutako “irudizko erkidego” batekin jadanik zerikusirik ez duten irizpideen (edo irizpide-nahasketaren) arabera elkartzen direnak: generoa, adin taldeak, gizarte-mailak, aukera estetikoa, eta abar. Globalizazioak eta teknologia berriek harreman berriak sortu dituzte musikaren eta lurraldearen artean, eta, hala, orain arte ez zeuden jokaerak, eginkizunak, gizartekoitasun motak agertu dira edo espazio eta ohitura zaharrak berrituratu egin dira.

Egoera hori ulertzeko, argi dago musikari eta musikologia historikoari buruzko azterketaren ohizko inguruneaz harago joan behar dela: antropologiak, soziologiak, geografia sozialak tresna eta ikusmolde interesgarriak eskaini ditzakete. Geografiaren alorreko ikaskuntzaren alderdi bat, bestalde, bideratuta dago soinu-fenomenoak eta musika “geoadierazle” bezala (Romagnan, 2000: 116) aintzakotzat hartzera, horri esker iker baitaitezke espazio bat egiazko “lurralde” bihurtzen duten mekanismoak, hots, “egokiera historikoen arabera eraiki eta berreraiki den errealtatea, duen zentzua beraren bidez aditzera ematen diren gizarte-prozesuetatik hartzen duena” (Jean-Pierre Augustin, Romagnanek aipatua, 2000: 115)⁸. Hori bera da hona bildu ditugun artikuluetako batzuen bidez erdietsi nahi duguna.

Txosten honen hasieran, Lothaire Mabruk Appenzell-eko gaur egungo musika aztertuko du: Suitzako kantoi horretan (edo, zehazkiago, kantoia osatzen duten bi kantoi-erdi teilakatueta), agerira ateratzen da etengabe bertako artzain-kultura, eta “eskualdearen irudi abegitsu eta erakargarria” lantzen da “bereziki nabarmenduta ‘arte eta ohitura herrikoia’, beren alderdi ikusgarriaren ikuspegitik”, egilearen hitzez baliaturik. Zehatzago esateko, musika-talde mota bat, harizko boskotea, eta bere errepertorioa dira “Appenzell kantoia-aren soinu-irudi bezala aurkeztzen” direnak, oso irudi erabili eta hedatua, bertakoek eta turista atzerritarrek osatutako publikora zuzenduta. Ohizko ikuspegi nazionaletik begiratuta, identitatea bereizgarritasun gisa ikusten da, bereizgarritasun horiek ahalbidetzen dutelarik lurraldearen eta –eskuartearen dugun adibidean– bertako musikaren arteko harremana finkatzea eta bereizkuntza ezartzea, beste

⁸ Hurbilketa geografiko berri honen inguruko taula osatua aurki daiteke Claire Guiuren artikulua honetan: «Géographie et musiques : état des lieux. Une proposition de synthèse». In: *Géographie et cultures*, n° 59, 2006. Paris, L'Harmattan, 2006; pp. 7-26.

kultura batzuekin alderatuta. Haatik, Appenzellen adibidea berezia da. Lothaire Mabruk, duela hainbat urtetatik Suitza alemaniarrean ikerketak egiten ari den adituak, bere buruari galdetzen dio zein den aldarrikatzen den berezitasuna: ez dago erabilitako tresnetan, ezta erreperitorioan ere, nahiz eta erreperitorioa Appenzelleko musikagileen emaitza izan –mailegu batzuk izan ezik–, eta ez dago erabiltzen den musika-hizkuntzan. Ordea, elementu bat mantendu da agian: jotzeko erak bereziak dira, erregistro zaharrei dagokienez, behintzat, eta “ohitura” hori leialtasunez mantendu duten jotzaile batzuen kasuan. Alabaina, gaur egungo appenzellarrek ez dituzte oso aintzakotzat hartzen jotzeko era horiek, desagertzeko zorian daudenak gainera, musika-eskoletan tresnak jotzen ikastea orokortzearen eta era guztietako musika-kulturekin loturak ugaritzearen ondorioz. Lothaire Mabruk ondorioztatzen du “lurraldeari atxikita egotea” ez dela irizpide objektiboetan oinarritzen (egokia izan litekeen elementu bakarra ez da kontuan hartu), herri batek bere identitatea “hariz jotzeko musika original” horretan –bertan izendatzen den bezala– jartzeko izan duen borondatean baizik.

Eraikuntza nazionalaren mekanismoan, prestaketarako etapa bat dago, idio-sinkrasiarekin zerikusia duena inbentarioaren bidez definitzean datzana. Gorago, kantutegiak eratzeak izan duen garrantzia ikusi dugu: arau bihurtu zen *corpus* bat finkatu zuten, eta horretan oinarrituta arte jaso nazionala garatu zen. Xabier Etxeberria-Adriek kementsu heldu die euskal etnografia sortu duten bi “monumentuei” (R.M. Azkueren eta Aita Donostiaren bildumak, oraindik, zalantzarik gabe, desmitifikatu ez direnak), eta horien edukiaren irakurketa kritikoa defendatzen du, berraztertzeko ingurune bat iradoki eta, ildo horretan, proposamenak eginda. Xede interesgarria da hori, berez dekonstrukzio bat delako: berraztertze horri beharrezkoa dela deritzo, ziur aski, kantutegiak egiteko moldeek agerian uzten dutelako prozesu ideologiko bat (ez dezagun ahaztu Hegoaldeko lau probintzietako aldundiek antolatutako lehiaketa baten ondorio direla) eta ez zientifikoa. Hala bada, bilketa hautatuaren itxura horrek batu eta indartu zuen nazionalistek defendatutako lurralde nazionalaren ikusmoldea. Bi bildumagileek erabilitako lan-metodologia aurrerantzean aztertuko duten lanek, bereziki haien landako liburuetan oinarrituta, ahalbidetuko lukete fenomeno hori hobeto ulertzea ez ezik, edukia, transkripzioak, sailkapena eta aurkezpena erabakitzeko orduan egindako hautaketak ere ezagutzera ematea, eta, hartara, Xabier Etxeberriak egindako behaketak egiaztatu edo, akaso, baliogabetzeaz gain, problematika berria ere agerian jarri ahal izango litzateke, ziur aski. Egileak aurreratutako argudioak ezta baidagai izan daitezke eta eragina izan dezakete. Hala nola, *Musiker* argitalpenean atseginez eta interes handiz onartuko lirateke ekarpen horiek, argitalpen kritikoa egiteko beharrezkoak dira-eta, Etxeberriak esaten duen bezala.

Lorenzo Sebastián Garcíak erakutsiko digu nola lurraldearen eta identitatearen arteko lotura musika-tresna baten bidez, txistuaren bidez, gauzatzen den. Primo de Riveraren diktaduraren garaian, eta Bigarren Errepublikan gero, unerik gorenera iritsi zen “Euskal Pizkundea”: artearen, kirolaren eta gizartearen esparru guztietan, bertako kulturaren ilustrazioa eta defentsa aldarrikatzen zituzten elkarteak eta erakundeak garatu ziren. 1927. urtean, Euskal Herriko Txistularien Elkartea sortu zen, eta, hamarraldi batean (1927-1936), profesionalen erakunde horrek zerikusi handia izan zuen Euskal Herriaren nazio-eraikuntzarekin.

Lorenzo Sebastián Garcíaren artikulua bidez, bete egin da aldi horretako historiografian zegoen hutsunea, orain arte ez baitzen elkarrekin elkarrekin buruzko azterlanik egin. Hortaz, mesedegarria izango litzateke elkarrekin horren ezarpen-maila, erakartzeko ahalmena, antolakuntza eta funtzionamendua ezagutzea, eta, bere jardueren eta bere prentsa-organoaren bitartez (*Txistulari* aldizkaria), txistua musika-tresna nazionalaren irudi gisa mamitzen eta zabaltzen lagundu zuen modua ikustea (“euskaldunago sentitzen gara txistuaren musika entzuten dugunean”), euskal tradizioaren bermatzailea eta baita moralarena ere izan baitzen, Eusko Alderdi Jeltzalearekin (EAJ) eta erlijioaren munduko pertsona ospetsuekin zituen loturak ezagututa erraz uler daitekeen ikuspegitik.

XX. mendearen hasierako beste elkarrekin bat da Nicolas Ruiz Descamps egilearen arreta bereganatu duena. Garai hartako prentsa nazionalista aztertzeke xehetasunez egindako lan batean oinarrituta, historialariak Bilboko Euzko Gaztediaren musika-jarduera berregin du –Euzko Gaztedia, EAJri lotua, gazteen erakundeetan aktiboena eta eragin handienekoa izan zen–. Erakunde horrek berriro heldu zion mugimendu nazionalak musikaren eta lurraldearen artean aldarrikatutako baliokidetasunari, eta, ondorioz, herri-kanta bilakatu zuen bere estrategiaren ardatz nagusi. Nicolas Ruizek, hala, desagertutako ohiturak hiri-ingurunean nola berpiztu ziren deskribatzen du, Santa Agata egunaren bezperako “Santa eskean” ibiltzeko ohituraren edo San Joanen kanten inguruan, usadiozko hitzei abagunerako idatzitako beste batzuk gehituta. Ondoren, herri-kantak eskala handiagoan, erakundearen argitalpenetan, nola berreskuratzen ziren azaltzen du, bereziki testuetan egindako manipulazioen ondorioz herri-kantaren eta kanta aberkoiaren artean gertatu ziren nahasketa eta ordezkapena zirela medio. Izan ere, transmititu behar zen mezua ez zen bakarrik nazionala: hor, nazionalista zen, eta identitatea sortzeko prozesua propaganda politiko bilakatu zen, alderdi politiko jakin bati uztartuta, EAJri alegia. Euzko Gaztediak argitaratutako hiru kantutegietan nahiz erakundeak antolatutako ikuskizun liri-koetan (hemen aztertuko den *Ixasondo* opereta horien adierazgarri), iruditeria nazionalistaren gai garrantzitsuenak aurkituko ditugu, Nicolas Ruizek Raoul Girardeti mailegatutako irakurketa-matrizearen laguntzaz (hurrenez hurren, Urrezko Aroa, Salbatzailea, Konspirazioa, Batasuna alderdiak kontuan hartuta) aztertzen dituenak.

Era berean, Pirinioez haraindiko nazionalismo historikoak eta ikuspegi erre-gionalistak bereziki taxutua den euskalduntasunaren inguruko ikuspegi esentzia-lista abiagunetzat hartuta –euskal berezitasuna, inguruko kulturekin alderatuta, denborazkanpokotasunaren eta iragazgaiztasunaren ingurunean aurkezten duen ikuspegia, alegia–, Thomas Pierrek gaur egungo irudikapenei heldu die, eta baita kantak Iparraldeko Euskal Herrian oinordetutako identitate-erreferenteen euskarri eta gaurkotzeko bektore gisa betetzen duen eginkizunari ere. Hala bada, Korrikan, duela hogeita hamar urte euskararen alde abiatu zen herrialdean zeharreko lasterketan, bertan erabiltzeko berariaz idatzitako kantak abesten dira, Euskal Herria euskararen lurraldea dela gogorarazten dutenak. Militanteen azken belaunaldien arabera, euskara eta, orokorrago, euskal kultura “herri-ondasuna da, espazio bat, eta herritar bakoitzak horren barnean egoteko eskubidea du”, eta, oraingoan ere, kanta ikusmolde hori zabaltzeko erabiltzen da, hots, euskal

berezitasunaren mitoan jatorria duten identitatea ulertzeko modu zaharragoen aurkakoa den edo modu horiei gehitzen zaien ikuspegia.

Txistua musika-tresna nazional bilakaturik, ezin harrituko gara Espainiako gerra zibilean parte hartu zuten nazionalisten batailoietan txistulariak aurkituz gero. Horra hor Euskal Herriko historia politiko eta musikaren beste alderdi ezezagun bat aztergai. Francisco Manuel Vargas Alonsok Bizkaiko artxibo historikoak eta garai hartako prentsa arakatu ditu, Euzko Gudarostea (1936-1937) osatzen zuten indar militarren eta sindikalen multzo heterogeneo hartan musikak bete zuen eginkizuna berregiteko eta ikertzeko. Hala bada, fakzio guztiei lotutako musika-eraketak –fakzio bakoitzak berezko zuen harmonia militarraz horniturik– irten dira ahanzturatik, eta baita hainbat musikagileren patuak ere, gehienetan tragikoak. Garai nahasi haietan, musikak zeremonia publikoen handitasuna azpimarratzen zuen, borrokalariei laguntzen zien, borrokarako sugarra kitzikatzen zuen, lurraldea soinu-aztarna adierazgarri batez markatuta. Baina, musikaren eta lurraldearen arteko harremana ere malguago eta mugikorrago bihurtu zen: Europako kantu iraultzaileek mugak zeharkatu zituzten, hitz eta hizkuntza berriez apainduta edo apaingarri horiek gabe, propagandak alderdi politikoa eta alderdi kulturala batu zituen, zenbaitetan ere modu harrigarrian –euskal nazionalistek, jakina, euskarazko errepertorio tradizionala eta jarduera koralak erabiltzen zituzten, eta, horren aldean, harrigarri samarra da egiaztatzea ez zirela nazionalistak izan, komunistak baizik, José María Usandizaga gaiaren nahiz musikaren aldetik sarritan Euskal Herriari lotutako piezak sortu zituen konpositorearen jaiotzaren berrogeita hamargarren urteurrena ospatu zutenak, irratan emandako kontzertu baten bidez–.

Eraikuntza nazionala ez da inoiz gelditu: irudikapen berriak irten dira argira, baina, era berean, argira irten dira ohitura berriak ere, duela bi mendez geroz identitate kolektiboaren prozesua mamitzeko oinarria den ondare hautatu horri lotuta. Horren haritik, Marcos Andrés Viergek ondarearen ikusmoldean eta erabileretan izandako bilakaera aztertzea proposatzen digu, zaintzeko eta zabaltzeko eginkizun “tradizionalak” eta gaur egun horiei gehitu zaien hezkuntza (kultura eskuratzea) abiagunetzat hartuta. Bere azalpenen barruko etapa bakoitzaren adierazgarri dira Pablo Sarasateren mendeurrena ospatzeko Iruñea bere sorterrian antolatutako ekitaldi eta argitalpen ugarietatik ateratako adibideak. Gaur egun arte, ondarearen, tradizioan errotzearen eta identitate kulturalaren artean izandako harreman estua azpimarratu eta gero, Marcos Andrés Viergek erakutsiko digu nola gaur egun ondarea berriz definitzen ari den, eta birdefinitze horren barruan, *kultura* nozioa nola zabaltzen ari den eta kultura herrikoiei berriz balioa ematen ari zaien, nola aintzakotzat hartzen ari diren ahozko ondarea eta ondare materiagabea, eta nola dagoen iraganaren eta orainaldiaren arteko elkarreragina era askotan bultzatzeko borondatea.

Jean-Jacques Castéretrek beste ondare baten aurrean azaldu du interesa: Biarnoko eta Bigorreko bailara piriniarretan, antzinako kultura polifoniko bat dago, XVIII. mendetik aurrera lekukotasuna duena. Ethnologoak bertan gertatutako ondoz ondoko aldakuntzak ikertu ditu, bereziki azkeneko berrogeita hamar urteetan gertatutakoak; lehenik eta behin, egoeraren ebaluazio bat egin du eta, hala, jardunbide berri ugari agertu dira: Siros (1967) eta Ibos (1977) herrietako

jaialdiek –non agerlekuan ez ezik tabernan ere abesten baita– kultur dinamika bat bultzatu dute, eta, edizio fonografikoak txanda hartuta, berehala ugaritu da “Biarnoko gau-jaien” bidez edo “Bigorreko gau-jaien” bidez, pastoralen eraberritzearen bidez eta ahozko lehiaketen bidez –hala nola Larunseko lehiaketak edo *Canta se gausas* izeneko topaketak, aperitibo baten aurrean kantatzera gonbidatzen duten *cantèras* izenekoak, eta abar–. Ondoren, “polifoniaren espazioak berriz antolatu eta berriz zabaldu” direla egiaztatzen du, lurzatiaren baterakuntza egiten den moduan, “lurzatiak lerratu” eta espazio berriak sortzen diren era berean (emakumezkoen ahozkotasanaren garapen publikoa, adibidez *Spécial filles* lehiaketetan edo gaueko emanaldietan). Lurraldea, orain, ez da materializatua eta formala soilik, birtuala ere izan daiteke-eta (Interneten garapena, posta elektronikoaren bidez sortutako harremanak, sarean eskaintzen diren blog eta bideoak), eta baita informala ere (“bitarteko lurralde” horiek, etnologoak ondo haute-man baitu agertu egin direla). Jardunbide berriek trukaketarako, elkar ezagutzeko, gizartekoitzeko joera berriak sortzen dituzte, eta hautatutako erkidegoak edo erkidego sinbolikoak agerrarazten dituzte, dagoeneko adin-tarte edo leku jakin bati uztartuta ez daudenak. Jean-Jacques Castéretrek “ahozkotasanaren lurraldea” agertu dela egiaztatu du, hots, kantu polifonikoaren edo Pirinioetako kantarien lurraldea, haien jokabide eta jardueren bidez atxikita daukaten estetika musikaren ezaugarriak –berak “identitatearen estetika” izendatu duena– bereiz daitezkeelarik.

Era berean azterlan etnografiko batean oinarrituta, Thierry Rougierek “mugitzen ari den tradizioaren” adierazgarria den adibide bitxi bat proposatzen digu, musikaren eta lurraldearen arteko ohizko lotura molde bereziaz bilakatzen dela erakusteko: Brasilgo ipar-ekialdeko *repente* delakoaz ari gara. Kantatutako poesia moduko horretan txandakatu egiten dira bat-batean diharduten bi kantari, herriaren benetako bozeramailetzat hartzen direnak, eta soinu- eta pentsamendu-askatasun handiz kantatzen dute, baina oso kodifikatuta dauden molde poetikoen barruan. Egoera eta emanaldi mota batzuk, *cantorias* izenekoak, teknologia berrietara eta bizimodu berrietara egokitu dira, era guztietako nahasmenduak –klimaren zein ekonomia eta gizartearen alorretan– jasaten dituen eskualde batean. Thierry Rougier ohartu da *repente* delakoak bere gizar-te-eginkizunak betetzen jarraitzen duela (meditazioa eta erregulazioa), baina lurraldearekin beste harreman batean oinarrituta. Egileak erakusten digu nola *nordestino* izendatzen diren herritarren emigrazioaren eta lekualdaketen ondorioz, “irudizko erkidego” bat sortu den, kultura “mugikor” batean jatorria duela (*repente* izeneko alegia, egiturazko molderik hertsatzaileenei leial, pairatzen dituen eraldaketak gorabehera) eta ez sorteri finko batean; azken hori da, hain zuzen ere, XIX. mendetik aurrera sortutako nazio europarren kasua, horietan identitatea lurra = kanta = herria ekuazioaren emaitza baitzen. *Nordestinoen* joan-etorrien ondorioz, kantuen bat-batekotasuna ez da lurralde batean etorkia duen ohitura gisa agertzen, aitzitik, lurraldearekin antzekotasuna duen zerbait baita, biek ere funtsezko ezaugarri bat partekatzen dutelako, alegia: mugimendua, aldaketa. Horiek horrela, *repenteak* kultura dinamiko bilakatu du oinordetzan hartutako tradizio bat, modernitatearekin bat egiten duena, identitate *nordestinoari* modernitatearekin batera doazen nahasmenduek ezartzen diotenaren seinale bat eta irudi bat: halako moduan, ezen aldakuntza hori bereizgarri bilakatu baita, oro har prozesu

nazionalak, identitatea denboraz at dagoen iraganaren aldaezintasunaren eta ekonomiaren eta gizartearen bilakaeraren gainean eraikita, sustatzen dutenaren aurka.

Musika eta lurraldea batzen dituen bestelako uztarria da Carmen Diez Minteguik eta Jone Hernandez Garciak alde batetik eta Ainhoa Kaierok bestetik proposatzen digutena. Egile horiek guztiek antropologia kulturalaren ikuspegia aldarrikatzen dute beren lanetan, eta aditzera ematen digute ikertzaileen interesa hiri-aglomerazioetarantz lekualdatu dela, bertan gizakiak nahiz kulturak gurutatu, teilakatu eta aldi berean bizi baitira atzera-aurrera ugari eginez.

Carmen Diez Minteguik eta Jone Hernandez Garciak gure mendebaldeko gizartearen erdigunean dagoen elementua, hots, musika, gaur egungo mundua ulertzeko erabili nahi izan dute eta, hala, Donostiaren eta Jazzaldiaren arteko loturen inguruko galderak jasotzen dituen itaunketa zabal baten emaitzak eskainiko dizkigute. Egileek ez digute Jazzaldia aurkezten *hirian* egiten den jaialdi moduan, *hiriarena* den jaialdi moduan baizik, eta, hartara, beren helburua “ikuspuntu bikoitz batetik abiatuta irakurketa egitea” da: Jazzaldiak ahalbidetzen du Donostia hobeto ezagutzea, hiriaren berezitasun batzuez jabetzea, eta, alderantziz ere, Gipuzkoako hiriburuak Jazzaldiaren ezaugarriak –burutzen diren jardueren nahiz entzuleen ezaugarriak– bereizteko hainbat gako eskaintzen ditu. Jakitera ematen digute lekua eta unea direla Jazzaldiari bere giro berezia ematen diotenak: hirian dagoen hondartza, udara, eta baita musikaldiak hartzen dituen espazioak ere, hainbat motatako musika-eskaintzak, lagunarteko giroak eta partekatutako emozioak onartzen dituzten espazioak baitira. Hala bada, ez dira modu berean bizi izango Victoria Eugenia antzokiaren intimitate itxi eta formalean eskainitako kontzertu bat eta ingurune “magikotzat” jotzen den Trinitate plazan, publikoaren eta jotzaileen artean “musika-batasuna” sortzeko bide ematen duen tokian, egiten den aire zabaleko emanaldi bat. Alderantziz ere, Jazzaldia kaleetara irteten da zenbait egunetan, eta hiria eraldatzen du: gizartekoitasun-espazio berria sortzen du, eta bertan gehienetan elkartzen ez diren publikoak nahastu egiten dira; udako egunerokotasuna eteten du, jaia ezartzen du eta erritual bezala funtzionatzen du, errituburua eta parte-hartzaileak dituela. Kontzertuek, batzuetan, une biziak sorrazten dituzte, norberarentzat gogoangarriak izan daitezkeenak, oroitzapen kolektiboan eta ofizialean iraungo dutenak, eta banakako nahiz taldeko identifikazio-harremanak ezartzen lagunduko dutenak.

Ainhoa Kaierok ez du hiri zehatz bat ikertu, “gure espazioak definitzen dituzten eta lurralde-identitatea ezartzen duten soinu-berezitasunak” baizik, eta, horretarako, gaur egun garraibideen, informaziobideen eta komunikabideen garapenak gure ikusmolde tradizionalak aldatu dituen “sareko gizarte” batean bizi garela dioen baieztapena izan du abiagune. Gertatutako aldaketak hobeto ulertzearren, orain arte zeuden espazio bakarren funtzionatzeko moduak –“leku antropologikoak”, Marc Augéren esamoldearen arabera– erkatu egin ditu sareko gizartean etorkia duten “hiperespazioen” funtzionatzeko moduekin –“ez-lekuak”, dinamikoak eta neutroak, batez ere sortu diren fluxuen joan-etorriak hartzen dituztenak, horientzat sortu baita giro-musika, berezko identitaterik gabeko soinu-atzealdea–. Ez-leku horiek espazio huts gisa ere funtzionatzen dute, eta edo-

zein soinu-ekintzaren bidez bete eta etengabe berrerratu egin daitezke. Ainhoa Kaierok zenbait arte-esperientzia azaltzen dizkigu, “entzunezko eremu zehaztugabe” horien ezaugarriei behar bezala balioa eman ahal izateko, esperientzia horietan musikak agerian uzten baitu “gu orientatzeko lurralde-mapa bat mugatuko lukeen narrazioaren artikulazio” bat ezartzeko zailtasuna.

Hitz hauen ondoren, bibliografia eskaini nahi izan dugu, gaikako zenbaki honetan aztergai izan dugun “musikaren eta lurraldearen” arteko lotura sakonago aztertzeko hainbat norabide erakusteko asmoz. Halaber, askotariko gaien atalean, Inmaculada Matía Polok José Inzengari buruz egindako historiografia-lan zorrotza irakurri ahal izango da. Lan horretan, Matíak azaltzen digu musikagilearen *Ecos de España* (1873) eta *Cantos y bailes populares de España* (1888) bilduma nagusiak nola sortu, landu, hedatu eta jaso ziren. Madrildar konpositore eta folklorista hau lanean aritu zen prestakuntza-lan multzo bat osatzeko, antzerki liriko nazionalaren oinarri sendoak finkatzearren: bere argitalpenak ez dira oso ezagunak, ez Espainian bertan ezta, are gutxiago, atzerrian ere, eta hona bildu dugun dokumentazioari esker, aukera izango dugu argitalpen horiek hobeto ulertzeko.

BIBLIOGRAFIA

- ANDERSON, Benedict. *L'imaginaire national*, frantsesezko argitalpena. Paris : La Découverte & Syros, 2002 ; 212. or.
- BARTOLI, Jean-Pierre. « La musique française et l'Orient : à propos de *Désert* de Félicien David ». In: *Revue internationale de Musique française*, 6 zk., 1981eko azaroa. Paris/Genoa : Slatkine, 1981; 29-36.
- . « Esquisse d'une chronologie des figures de l'orientalisme musical français au XIX^{ème} siècle ». In: JAMBOU, Louis. *La musique entre la France et l'Espagne. Interactions stylistiques*. Paris : Presses de l'Université de Paris-Sorbonne, 2003; 201-213.
- BENOIT, Marcelle (zuz.). *Dictionnaire de la musique en France aux XVII^{ème} et XVIII^{ème} siècles*. Paris : Fayard, 1992 ; 811. or.
- BORDES, Charles. « La musique populaire des Basques ». In: *La tradition au Pays basque*, faksimilea 1. argit. 1899. Donostia/Baiona: Elkar, 1982; 295-354.
- CALVOCORESSI M.-D. *Glinka*. Paris : Henri Laurens, s.d. ; 127. or.
- CORRE, Christian. *Ecritures de la musique*. Paris : PUF, 1996 ; 207. or.
- COUPERIN, François. *Les goûts réunis*. Paris : Boivin, 1724 ; 76. or.
- FAUQUET, Joël-Marie (zuz.). *Dictionnaire de la musique en France au XIX^{ème} siècle*. Paris : Fayard, 2003 ; 1406. or.
- FRANCFORT, Didier. *Le chant des nations*. Paris : Hachette, 2004 ; 461. or.
- HORTON, John. *Edvard Grieg*. Paris : Fayard, 1989 ; 300. or.
- HUGO, Victor. *Odes et ballades. Les Orientales*, berrargit. Paris : Garnier-Flammarion, 1968 ; 442. or.
- HUGO, Victor. *Oeuvres complètes. Critiques*. Paris : Robert Laffont, 1985 ; 761. or.
- LABORDE, Jean-Benjamin de. *Essai sur la musique ancienne et moderne*. Paris : Imp. de

- Ph. - D. Pierres, 1780, IV. liburua ; 476. or.
- LAFITAU, Joseph-François. *Mœurs des sauvages américains comparés aux mœurs des premiers temps*. Paris : François Maspéro/La Découverte, 1983 ; 2 liburuki, 287. eta 185. or.
- MERSENNE, Marin. *Harmonie universelle*, faksimilea 1. argit. Paris : C.N.R.S., 1965 ; 3 liburuki, 228+36, 442. eta 412+79+68+28 or.
- MOREL-BOROTRA, Natalie. « Le chant et l'identification culturelle des Basques ». In: *Lapurdum*, V zk. Bordele/Baiona : UMR 5478 C.N.R.S.koa / Baiona-Angelu-Miarritzeko Diziiplina Anitzeko Fakultatea, 2000 ; 351-381.
- PRAETORIUS, Michael. *Syntagma musicum*, faksimilea 1. argit. Kassel : Bärenreiter-Verlag, 1959.
- RINGER, A.L., « On the question of exoticism in 19th century music ». In: *Studia Musicologica Academiae Scientiarum Hungaricae*, 7. lib., fasz. ¼. Budapest, 1965 ; 115-123.
- ROBERT, Paul. *Dictionnaire alphabétique et analogique de la langue française*. Paris : Le Robert, argit. berria 1987, 2171. or.
- ROMAGNAN, Jean-Marie. « La musique, un nouveau terrain pour les géographes ». In: *Géographie et cultures*, 36 zk., 2000ko negua. Paris, L'Harmattan, 2000 ; 107-126.
- ROUSSEAU, Jean-Jacques. *Dictionnaire de musique*, faksimilea, argit. berria. Paris : Art et culture, 1977 ; 2 liburuki, 442. eta 491 or.
- SALVADOR-DANIEL, Francisco. *Musique et instruments du Maghreb*, argit. berria. Paris : La boîte à documents, 1986 ; 176. or.
- TAIEB, Patrick. *L'ouverture d'opéra en France de Monsigny à Méhul*. Paris : Société française de Musicologie, 2007 ; 494. or.
- THIESSE, Anne-Marie. *La création des identités nationales*. Paris : Seuil, 1999 ; 302. or.
- WARRACK, John. *Carl Maria von Weber*. Paris : Fayard, 1987 ; 471. or.

MÚSICA Y TERRITORIO : LOS AVATARES DE UNA CONJUNCIÓN*

Nada permite conocer mejor al vasco que su canción. Ella traduce, en su lengua ingenua y encantadora, las vivas sensaciones y los orgullosos sentimientos que dan forma a este ser admirable. (...) esta música no sólo expresa los sentimientos y las sensaciones del vasco, sino que tiene una misteriosa correspondencia con su vida física, su trabajo, su juego o su danza (...). Y el poeta irá más lejos aún: no podrá entender algunos de estos temas, sin ver el propio País Vasco, la naturaleza embriagadora de este rincón de tierra que Loti supo pintar tan bien en su novela *Ramuntcho* (Bordes, 1899: 297-298).

¿Un territorio que se aparece al oyente a través de un canto popular? Aunque el relato de este tipo de espejismos auditivos es frecuente en la literatura y el relato etnográfico de finales del s. XIX, esto no ha sido siempre así, y no dejamos de preguntarnos sobre la pertinencia actual de este tipo de relaciones. La aprehensión de la dinámica entre música y territorio ya no se limita a la dimensión nacional (las transformaciones de las prácticas culturales, la mezcla de las poblaciones, el desarrollo de nuevas tecnologías, entre otros factores, han contribuido a modificar la situación) y renueva la problemática de la representación identitaria. Nos ha parecido interesante estudiar algunos de estos aspectos en el presente número, cuyos artículos son el resultado de una convocatoria difundida a ambos lados del Pirineo.

Antes que nada, recordemos brevemente algunos de los hitos que jalonan los recorridos autónomos o convergentes entre “música” y “territorio”. Durante mucho tiempo, los exploradores han relatado las manifestaciones sonoras que han encontrado en su camino: la información hallada sobre instrumentos, las leyendas y los usos relacionados con la “música” han suscitado su curiosidad o extrañeza, y han considerado apropiado utilizarla para contribuir a dar a conocer una tierra nueva o desconocida, o para completar una descripción que reproducía los esquemas que les eran familiares. Así pues, muchos ejemplos de anotaciones más o menos precisas que dan cuenta de la presencia de la música se encuentran en el *Voyage autour du monde* (1771) de Louis Antoine de Bougainville o en la monumental *Histoire générale des voyages* de Antoine François Prévost (publicada a partir de 1746)¹. No obstante, estas consideraciones breves y dispersas no estaban todavía en condiciones de proporcionar por sí mismas una evocación de comarcas lejanas, y eso por varias razones: no eran más que detalles añadidos al retrato pintado desde el punto de vista eurocentrista descubridor del mundo, detalles mudos que el público debía primero aprender a conocer para luego reconocer.

*. Se trata de una traducción del texto original en francés.

1. Podemos citar a título de ejemplo la descripción de Tahiti hecha por Louis Antoine de Bougainville, donde se ve la isla como un jardín del Edén donde “los músicos cantaban acompañados de la flauta un himno de gozo» (*Voyage autour du monde*, Paris: Saillant & Nyon, 1771, chapitre IX), o el largo apunte sobre las prácticas musicales de los “nativos de las islas Sandwich [que] cantan a varias voces” que podemos encontrar en el relato de Cook (nueva edición abreviada de Jean-François de La Harpe, Lyon: Imprenta de M.P. Rusand / Paris, 1835, volumen 29, libro III, pp. 145-146).

En adelante, observadores más volcados en la ciencia musical, han añadido anotaciones en pentagramas en sus textos: por ejemplo, el senador veneciano Giovanni Battista Donado, que estuvo varios años en Estambul, enriquece su obra *Della letteratura de' Turchi. Osservationi fatte da Gio. Battista Donado senator veneto, Fù Bailo in Costantinopoli* (1688) con tres melodías “turcas” (Ringer, 1965: 116). Igualmente, Jean-Baptiste Du Halde integra en su *Description géographique, historique, chronologique, politique et physique de l'empire de la Chine et de la Tartarie chinoise* (1735) cinco aires “chinos” transmitidos por los jesuitas instalados en el Imperio del Medio (Ringer, 1965: 115). Lo relevará el Padre Amiot, que vivió en Pekín de 1750 a 1793. Este último envió varias memorias –la mayoría de ellas permanecieron inéditas– que incluían particularmente músicas de los divertimientos en uso en la corte manchuriana (Benoit, 1992: 16). Más tarde, algunos compositores lo recordarán y, llegado el caso, integrarán estos fragmentos en sus obras: Carl Maria von Weber, por ejemplo, utiliza un aire proporcionado por Du Halde² como tema único de su *Ouverture chinoise*, y una canción egipcia citada por el danés Carsten Niebuhr en su *Reisebeschreibung nach Arabien* (1774) para el final del primer acto de *Obéron* (Warrack, 1987: 75, 384-385).

Los teóricos de la música y los musicógrafos de los siglos XVII y XVIII se han vuelto también hacia las músicas extra-europeas: Michael Praetorius proporciona, en su *Syntagma musicum* (1615-1619) esbozos de instrumentos exóticos (1959: tablas XXIX a XXXI); asimismo, Marin Mersenne, en su *Harmonie universelle* (1636), se propone “explicar algunos instrumentos de las Indias y de Turquía”, incluyendo una tabla de ilustraciones (1965, tomo III: 227-228) y presenta más adelante un “instrumento de indios” (en realidad, un órgano de boca), con grabado (*idem*: 308). Sin embargo, el volumen de estas aportaciones resulta ínfimo con respecto al conjunto: el objeto es una “armonía universal” (es decir, en este caso esencialmente la de la música culta que le es familiar, por la práctica o por el estudio, a partir del cual Mersenne quiere evocar el arte de los sonidos) y no el examen de músicas particulares relacionadas con países lejanos, inconcebible en esta concepción unitaria del fenómeno musical.

Los vínculos que el repertorio musical culto de esta época teje con estas comarcas extra-europeas se concretan sobre todo en los libretos y la representación escénica: esto concierne sobre todo a las obras líricas³, los ballets de corte, los divertimientos, los carruseles. La moda del exotismo, que se ve reflejada en el uso de porcelanas chinas o en las traducciones de las *Mil y una noches*, ciertamente, estimula la imaginación, pero no desde un punto de vista sonoro y eso por varias razones: por una parte, porque no conviene que una ópera seria se muestre pintoresca, y por otra parte, porque el conocimiento real que se tiene es mínimo y el objetivo que se persigue es la búsqueda de lo maravilloso y del divertimento; así pues, la mayor de las fantasías preside la representación. Como lo resume Nathalie Lecomte para Francia, que sin duda es el país que más cultiva el exotismo, “no hay que buscar rastros de autenticidad, tanto des-

2. Via el *Dictionnaire de musique* de Jean-Jacques Rousseau (1977, tomo 2, plancha: 26).

3. A. L. Ringer señala antes de 1800, más de cuatro cientos óperas basadas en un tema exótico, en particular en Francia (1965 : 115).

de el punto de vista musical como desde el coreográfico. Representados de manera convencional y estereotipada, los extranjeros cantan y bailan con el estilo francés más puro” (voz “exotisme”, en Benoit 1992: 281). Las obras de Rameau lo ratifican muy bien: en las *Indes galantes* (1735), por ejemplo, “los diferentes climas de la India” -una formulación que huele a Montesquieu...- contienen “los jardines del Pacha Osman”, “un desierto en Perú”, “los jardines del palacio de Ali”, “un príncipe persa”, y “un bosque de América” donde vive “la nación salvaje”, pero estos diferentes territorios apenas están diferenciados musicalmente, y la última “entrada”, que retoma la célebre danza de los salvajes escrita para clavicordio algunos años antes, se cierra con una *chacona*.

De manera general, la caracterización musical del exotismo se da, sobre todo, a través de la utilización de la percusión, lo que se denominará “música turca” a partir de la segunda mitad del siglo XVIII, y que evoca un territorio que sobrepasa por mucho el mundo otomán para llegar incluso a la India o a China. Como lo advierte Patrick Taïeb con respecto a las óperas cómicas francesas hasta comienzos del siglo XIX, “el Oriente caracterizado de este modo es menos un territorio que un género dramático, y la *turquerie* resulta una especie de comedia viva cuya localización lejana permite la desviación de las normas convencionales” (2007: 152).

¿Qué pasa con las músicas que provienen de territorios mucho más familiares de Europa? La danza es, ante todo, la primera que relaciona “música” y “territorio”. Mersenne enumera, en el “Tratado de la voz y de los cantos” de la obra citada, las *danceries* (danzas) “como propias de Francia, o naturales de otras naciones de las cuales las hemos extraído: el *passamezzo* es un canto a la italiana apropiado para bailar (...). La pavana viene de España (...). La alemanda es una danza de Alemania (...), etc.”, y las ilustra con un ejemplo musical (1965, tome II: 164). Estas danzas se mencionaban ya en la famosa *Orchésographie* (1589) de Thoinot Arbeau, en la que se teje un panorama europeo. Más tarde se dará cuenta de las canciones: Jean-Baptiste de La Borde, por ejemplo, les dedica parte de su *Essai sur la musique ancienne et moderne* (1780, libro IV), lo que le lleva a interesarse por el repertorio popular occidental; se detiene en Europa del Norte, y luego aporta palabras y arreglos musicales de cantos de diversas provincias de Francia. Es seguramente uno de los autores más prolijos en la materia (teniendo todas las proporciones en cuenta): señal, sin duda, de que obras como la suya dan a conocer y contribuyen a crear un nuevo interés, que va tomando forma.

¿La música culta de este periodo se hace eco de la geografía europea? Los títulos de algunas obras barrocas podrían hacerlo suponer: por ejemplo, François Couperin publica en 1724 piezas instrumentales tituladas *Les nations*, que incluyen *La Française*, *L'Espagnole*, *L'impériale*, *La Piémontoise*. Pero cada “orden” incluye en realidad una sonata de gusto italiano, seguida por danzas a la manera francesa. Couperin se había explicado en el prefacio de sus *Goûts réunis*, publicados dos años antes: “el gusto italiano y el gusto francés han compartido la República de la Música desde hace mucho; en lo que se refiere a mí, he apreciado siempre las cosas que lo merecían, sin acepción de Autores ni de Naciones”. El único territorio pertinente, en el ámbito musical, es el espacio virtual de la “República de la Música” donde reinan los “gustos” italiano y francés,

definiéndose el gusto como un estilo musical, independiente del origen del compositor y del territorio donde éste opera. Sin embargo, en Francia, donde los panfletos y los ensayos alimentan las “querellas”, las polémicas no serán menos violentas. Fuera, de Lisboa a Moscú, la música italiana triunfa llevada por músicos italianos o autóctonos. Tal como lo resume Joël-Marie Fauquet con una sola frase, “el debate estético que, durante los siglos XVII y XVIII, consistió en hablar de los méritos comparados de las escuelas nacionales, no tiene nada que ver con el nacionalismo, porque es tributario del concepto de nación como entidad artística” (voz “nacionalisme”, 2003: 855).

Así pues, piezas como *Le Basque* (5^{ème} suite) y *La Biscayenne* (6^{ème} suite) de Marin Marais no deben conducirnos a engaño: son, al igual que *La Provençale* (3^{ème} suite) y varias *Allemandes* que salpican las seis suites, danzas que el compositor parisino enlaza para formar su 4^{ème} *livre de pièces pour viole* (1717)⁴. Un título de danzas no implica la utilización de una melodía autóctona, ni una intención descriptiva particular. En el caso de las dos primeras citadas, recordemos, además, que “el “país de los vascos”, o “Vizcaya”, era muy poco conocido en esta época. Todavía no ha llegado el momento de representar la propia cultura; ni tampoco las manifestaciones musicales de su idiosincrasia ni las de los territorios vecinos.

Sin embargo, las cosas van a cambiar. Sin duda, se puede considerar a Jean-Jacques Rousseau como uno de los autores más perspicaces que da testimonio de las transformaciones en curso. En la voz “Música” de su *Dictionnaire* (1767), introduce un comentario pertinente relativo al *ranz des vaches*: “La música, en tal caso, no actúa precisamente como música, sino como un signo memorativo” (1977, tome 1: 362). La memoria, en efecto, desempeñará ahora un papel cada vez más importante en las relaciones entre música y territorio: si la música puede reactivar la memoria de un lugar, haciendo desertar a los mercenarios suizos “tanto excitaba en ellos el ardiente deseo de ver otra vez su país” (*idem*), se convertirá también, directamente, en memoria del territorio y del pueblo que vive en él. Por otra parte, como lo muestra Benedict Anderson, el desmembramiento de los dos cuadros de referencia como eran la comunidad religiosa y el reino dinástico, la modificación de la aprehensión del tiempo con la utilización del calendario, llevarán a la aparición de un nuevo tipo de organización cultural y social, cuya instalación es tributaria del desarrollo del capitalismo y de lo impreso: la nación. Anderson propone una definición que iba a permitir, a partir de los años 1980, repensar esta noción. Según él, en efecto, la nación se presenta como “una comunidad política imaginaria, e imaginada de manera intrínseca limitada y soberana” (2002: 19). Uno de los principales fenómenos que acompañan su instalación es la modificación de la relación con el territorio. Para entender mejor las implicaciones en el ámbito que nos interesa, hay que retomar la cronología de los eventos.

Algunos años antes de la aparición del diccionario de Rousseau, un joven poeta escocés, James Macpherson, publica las traducciones inglesas de algu-

4. El mismo año, Couperin publica *La Basque*, sacada del *Second livre de pièces de clavecin*.

